# IRURTZUNGO UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA
# *ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN DE IRURTZUN*

2024KO EKAINAREN 5EKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

*ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE 5 DE JUNIO DE 2024*

**Irurtzunen, bi mila eta hogeita lauko ekainaren 5ean, arratsaldeko 19:00ak direnean**, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, Irurtzungo Udaleko Udalbatza bildu da, ohiko osoko bilkura egiteko, aldez aurretik legeak agintzen duen moduan deituta, Unai Razkin Iriarte jauna alkate - lehendakaria buru dela, eta bertan direla ondoren aipatzen diren zinegotzi hauek:

***En Irurtzun, siendo las 19:00 horas del día 5 de junio de dos mil veinticuatro*** *se reúne en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial la Corporación del Ayuntamiento de Irurtzun al objeto de celebrar* ***sesión ordinaria****, previamente convocada en forma legal, bajo la Presidencia del Alcalde - Presidente, Don Unai Razkin Iriarte, con la asistencia de los concejales y las concejalas de la Corporación que se enumeran a continuación:*

Agurtzane Garijo Peralta andrea (EH Bildu).
Aitor Larraza Carrera jauna (EH Bildu).
Ana Balda San Juan andrea (EH Bildu).
Irati Ollakarizketa Iriarte andrea (EH Bildu).
Jon Navarro Carrillo jauna (EH Bildu).
Joseba Royo García jauna (EH Bildu).
Juan José Iriarte Vitoria jauna (EH Bildu).
Luis Enrique de la Calle Moreno jauna (UPN).
Miguel Ángel Martínez García jauna (UPN).

*Doña Agurtzane Garijo Peralta (EH Bildu).*
*Don Aitor Larraza Carrera (EH Bildu).*
*Doña Ana Balda San Juan (EH Bildu).*
*Doña Irati Ollakarizketa Iriarte (EH Bildu).*
*Don Jon Navarro Carrillo (EH Bildu).*
*Don Joseba Royo García (EH Bildu).*
*Don Juan José Iriarte Vitoria (EH Bildu).*
*Don Luis Enrique de la Calle Moreno (UPN).*
*Don Miguel Ángel Martínez García (UPN).*

Ez da etorri Domingo Goñi Sarasola jauna (UPN).

*No asiste Don Domingo Goñi Sarasola (UPN).*

Idazkari lanetan, udalbatzarena, Eguzkiñe Aiesa Andres andrea.

*Asistida la Corporación por mí, la Secretaria Municipal, Doña Eguzkiñe Aiesa Andres.*

Alkateak bilerari hasiera eman dio 19:03an.

*El Alcalde da inicio a la sesión siendo las 19’03 horas.*

## 1.- 2024ko maiatzaren 15eko Osoko Bilkuraren akta onartzea, hala badagokio.

## *1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión plenaria del día 15 de mayo de 2024.*

2024ko maiatzaren 15eko osoko bilkuraren akta

*Se procede a someter a debate y votación el acta de la*

eztabaidagai eta bozkagai jarri da eta, hitzartzerik izan gabe, aho batez onartu da.

*sesión plenaria del día 15 de mayo de 2024, que sin toma de palabras, queda aprobada por unanimidad.*

**2.- Alkatetzaren ebazpenen berri ematea, 2024/132-etik - 2024/161 ebazpenera.**

Hitzik hartu gabe, osoko bilkura jakitun geratu da, alkatetzaren 2024/132 ebazpenetik eta 2024/161 ebazpenera.

***2.- Dar cuenta de las resoluciones de alcaldía, desde la 132/2024 hasta la 161/2024.***

*Sin intervenciones, la Corporación se da por enterada de las resoluciones de alcaldía 132/2024 a la 161/2024.*

**3.- Aurreko osoko bilkuratik gaur arte egindako ordainketak. Informazio Batzordean horien berri eman ondoren, Udalbatzak hitz - txanda irekiko da, ondoren, hala badagokio, erregistratzeko.**

Hitzik hartu gabe, Udalbatza ados dagoela ulertzen da, baiespenez.

***3.- Pagos efectuados desde la anterior sesión plenaria hasta la fecha. Habiendo dado cuenta de los mismos en la Comisión Informativa, se somete al turno de palabra de la Corporación, para proceder posteriormente, en su caso, a su registro.***

*Sin intervenciones, se entiende conformidad de la Corporación por asentimiento.*

**4.- 2024/4 aurrekontu - aldaketaren hasierako onarpena, hala badagokio.**

Alkateak gogorarazi du, Batzordean azaldu zen bezala, Atakondoa ikastetxe publikoan galdararen jarduera gauzatzeko beharrezkoa den aldaketa bat dela. 2023ko amaieran memoria balioztatu bat zegoen, eta proiektua idazteari ekitean aurreikusi gabeko premiak antzeman dira, hala nola galdara-gela berri bat gaitzeko beharra, oraingoa, gasarena, dagoen bezala uzteko (batetik, beharrezkoa delako ikastetxearen zati txiki batan funtzionatzeko, eta, bestetik, galdara berriak huts egingo balu, bere ordez erabili ahal izateko). Ideia hori gauzatzeko hainbat modu daude, eta arazo gutxien dakarrena sarbide berri batekin obra txiki bat egitea da eta, beraz, hori da lehenetsi dena.

Horregatik guztiagatik, jarduketaren balio zenbatetsia handitu egin da, eta, eskola lehentasunezkoa dela

***4.- Aprobación inicial de la modificación presupuestaria 4/2024, si procede.***

*El Alcalde recuerda que, tal y como se explicó en Comisión, se trata de una modificación necesaria para ejecutar la actuación de la caldera en el Colegio Público Atakondoa. Había una memoria valorada de final del año 2023, y al redactar el proyecto se han advertido necesidades no contempladas, como la necesidad de habilitar una nueva sala de calderas para dejar la actual, de gas, tal y como está (por un lado, porque es necesaria para el funcionamiento de una pequeña parte del colegio y, por el otro, con el objetivo de suplir en caso de que la caldera nueva fallara). Existen diversas maneras de ejecutar dicha idea, y la que menos problemas presenta es esta, consistente en hacer una pequeña obra con un acceso nuevo.*

*Por lo anterior, el valor estimado de la actuación ha sufrido un incremento y, entendiendo que la escuela es*

ulertuta, liburutegiko aparkalekuko obraren partida liburutegira aldatzea proposatzen da. Gainera, aparkalekuaren obra erabat finantzatzea aurreikusten da, diru-sarrera propioekin; galdararen jarduketak, berriz, Nafarroako Gobernuaren 100.000 euroko dirulaguntza izenduna du, beraz, honako jarduketa ez egiteak galera handia ekarriko luke udal diru-kutxetan.

*prioridad, se propone el trasvase de la partida de la obra del parking de la biblioteca a esta. Además, la previsión es financiar la obra del parking enteramente con ingresos propios, mientras que la actuación de la caldera cuenta con una subvención nominativa de Gobierno de Navarra, ascendente a 100.000 euros, que supondrían una pérdida importante en las arcas municipales.*

Amaitzeko, alkateak adierazi du Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak agindutako dirulaguntza deialdia, hots, Nafarroako toki erakundeei (udalei eta kontzejuei) ikastetxe publikoak hobetzeko eta birmoldatzeko obra proiektuak egiteko dirulaguntzak ematekoa, ebatzi dela, eta Irurtzungo Udalaren eskaera erreserba postuetan gelditu dela, dirulaguntza lortuko ez dela pentsarazten duen puntuaketarekin, gainera.

*Para acabar, el Alcalde comenta que se ha resuelto la convocatoria de subvenciones a entidades locales (municipios y concejos) de Navarra para la ejecución de proyectos de obras de mejora y remodelación de centros públicos, del Departamento de Educación de Gobierno de Navarra, y que la solicitud del Ayuntamiento de Irurtzun ha quedado en puestos de reserva, además con una puntuación que apunta a que no llegará a obtenerse.*

Enrique de la Calle jaunak hartu du hitza, lehentasunezko jarduketa izanik egin beharrekoa dela esateko.

*Toma la palabra D. Enrique de la Calle, para decir que, igualmente, es una actuación prioritaria que debe ejecutarse.*

Bozketa egin da eta **Osoko Bilkurak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Se procede a la votación y **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- 2024ko aurrekontuaren 4. moldaketa hasiera batez onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación presupuestaria 4 de 2024.*

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Udal Kontu-hartzailetzari, jakinaren gainean egon dadin eta ondorioak izan ditzan.

*SEGUNDO.- Dar cuenta de este acuerdo a la Intervención Municipal, para su conocimiento y efectos.*

**5.- Musika Eskolako tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren aldaketaren hasierako onespena, hala badagokio.**

***5.- Aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por asistencia a la Escuela de Música, si procede.***

Alkateak azaldu du Musika Eskolaren defizita handia dela, eta tasak eguneratu gabe daudela, ia, 2014tik. Ondorioz, tasak pixka bat eguneratzea da proposatzen dena, diru-sarrera eta gastu errealak zertxobait

*El Alcalde explica que el déficit de la Escuela de Música es importante, y que llevan sin actualizarse las tasas, prácticamente, desde 2014, por lo que se actualizar mínimamente, para equiparar algo más los*

parekatzeko.

*ingresos y gastos reales.*

Hitz egiteko txanda irekita, ez du inork hartu eta, beraz, gaia zuzenean bozkatzeari ekin zaio. **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Se abre el turno de palabras, sin que las haya, por lo que se somete directamente el asunto a votación y* ***el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- Musika Eskolako tasak arautzen dituen 10. zerga - ordenantzaren ordenantzaren aldaketa hasiera batez onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación de la ordenanza fiscal 10, reguladora reguladora de las tasas por asistencia a la Escuela de Música.*

BIGARRENA.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta jendaurrean jartzeko hilabeteko epea irekitzea, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Alegaziorik aurkezten ez bada, ordenantza behin betiko onartu dela ulertuko da, eta osorik argitaratuko da NAOean.

*SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra y abrir un periodo de exposición pública de un mes desde el día siguiente a su publicación. En caso de que no se presenten alegaciones la ordenanza se entenderá aprobada definitivamente y se procederá a su publicación íntegra en el BON.*

**6.- Gaztetxokoa erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasen arauak jasotzen dituen Ordenantza Fiskalaren aldaketaren hasierako onespena, hala badagokio.**

***6.- Aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por la utilización del Gaztetxoko, si procede.***

Alkateak gogorarazi du orain arte tasa sinbolikoa izan dela, bost eurokoa ikasturtean. Alta, balioa emateko eta lokalak eta zerbitzuak dakartzaten gastuen estaldura errazteko, hura eguneratzea eta ikasturteko 20 eurotan ezartzea proposatzen da, familientzat karga ez dela ulertuta. Halere, kalteberatasuna deklaratzen duen Gizarte Zerbitzuen txostena duten familientzat 5 euroko tasari eustea proposatzen da.

*El Alcalde recuerda que hasta la fecha la tasa ha sido simbólica, de cinco euros el curso. Por darle valor, así como por facilitar la cobertura de gastos que el local y el servicio conllevan, se propone actualizar la misma y establecerla en 20 euros el curso, entendiendo que no supone una carga para las familias. No obstante, se propone la mantención de la tasa en 5 euros para las familias que cuenten con informe de Servicios Sociales en el que se declare su vulnerabilidad.*

Hitzik hartu gabe, bozketa egin da eta **Osoko Bilkurak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Sin toma de palabras, se procede a la votación y* ***el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- Gaztetxokoa erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasen arauak jasotzen dituen 19. zerga - ordenantzaren aldaketa hasiera batez onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación de la ordenanza fiscal 19, reguladora de las tasas por la utilización del Gaztetxoko.*

BIGARRENA.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta jendaurrean jartzeko hilabeteko epea irekitzea, argitaratu eta hurrengo

*SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra y abrir un periodo de exposición pública de un mes desde el día siguiente a su publicación. En*

egunetik hasita. Alegaziorik aurkezten ez bada, ordenantza behin betiko onartu dela ulertuko da, eta osorik argitaratuko da NAOean.

*caso de que no se presenten alegaciones la ordenanza se entenderá aprobada definitivamente y se procederá a su publicación íntegra en el BON.*

**7.- Ohiko etxebizitzarako lurzorua erosteko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren hasierako onespena, hala badagokio.**

***7.- Aprobación inicial de la ordenanza reguladora de las subvenciones para adquisición de suelo con destino a vivienda habitual, si procede.***

Alkateak gaiari sarrera eman dio proposatzen den ordenantzaren helburu nagusiak argituz: batetik, Irurtzungo ahalik eta pertsona eta familia gehienei etxebizitza eskuratzen laguntzea, eta, bestetik, Nafarroan gertatzen ari den despopulazioaren eta landa-eremuen zahartzearen fenomenoa ikusita, errotzea sustatzea, familia gazteak herrian gera daitezen bultzatuz. Hitzartzea amaitzeko, gogorarazi du gaia sakon azaldu zela Batzordean, eta azalpen gehiago emateko eskaintza egin du.

*El Alcalde introduce el punto aclarando los objetivos principales de la ordenanza que se propone, que refiere: Por un lado, facilitar el acceso a la vivienda para la mayor parte posible de las personas y familias de Irurtzun, y por el otro, y a la vista del fenómeno de despoblación y envejecimiento de las zonas rurales que se está dando en Navarra, fomentar el arraigo, impulsando que las familias jóvenes se queden en el pueblo. Termina recordando que el asunto se explicó en profundidad en Comisión, y haciendo ofrecimiento para más aclaraciones.*

Enrique de la Calle jaunak hartu du hitza, eta adierazi du, bere taldeak zalantza batzuk baditu ere, Idazkaritzaren txosten juridikoa aztertu dutela, eta uste dutela proposamenak legezko lotura duela, beraz, hasierako onespenaren aldeko botoa emango dutela, jendaurreko erakustaldian alegaziorik egonez gero, birbideratzeko aukera baitago oraindik ere.

*Toma la palabra don Enrique de la Calle, exponiendo que, si bien su grupo tiene algunas dudas al respecto, han estudiado el informe jurídico de Secretaría y creen que la propuesta cuenta con sujeción legal, por lo que votarán favorablemente a esta aprobación inicial y, en caso de existir alegaciones en el período de exposición pública, sigue habiendo posibilidad de redireccionar.*

Alkateak amaitu du eztabaida, eta zehaztu du, Udalak eskumen eta baliabide gehiago izango balitu, asmo handiagoko proposamenak egingo liratekeela, baina, hala ez denez, honako hau egin dela, etxebizitza-eskubidea ahalik eta hobekien estali ahal izateko.

*Termina el debate el Alcalde, concretando que, en caso de que el Ayuntamiento contara con mayores competencias y recursos, se hubieran hecho propuestas más ambiciosas pero que, al no ser así, se formula la presente, buscando cubrir el derecho a la vivienda de la mejor manera posible.*

Gaia bozkatzeari ekin zaio eta **Udalbatzak, bertaratutako hautetsien aho batez, erabaki du:**

*Se somete el asunto a votación y el Pleno, **por unanimidad de las presentes, acuerda:***

LEHENENGOA.- Hasierako onespena ematea ohiko

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la ordenanza*

etxebizitzarako lurzorua erosteko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzari.

*reguladora de las subvenciones para adquisición de suelo con destino a vivienda habitual.*

BIGARRENA.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta jendaurrean ikusgai jartzeko hogeita hamar egun balioduneko epea irekitzea, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea azter dezaten eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

*SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra y abrir un período de exposición pública de treinta días hábiles, a contar desde el siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Navarra, para que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos u observaciones.*

Jendaurreko epea iragaten bada inork alegaziorik egin gabe, ordenantza behin betiko onetsirik geldituko da, eta testua osorik emanen da argitara Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

*En caso de que no se presenten alegaciones, la ordenanza se entenderá aprobada definitivamente y se procederá a su publicación íntegra en el Boletín Oficial de Navarra.*

**8.- 2. poligonoko 82 lursailaren erosketa (zinema zaharra), hala badagokio.**

***8.- Compra de la parcela 82 del polígono 2 (antiguo cine), si procede.***

Alkateak gogorarazi du, hainbat batzordetan jorratu den bezala, Irurtzungo aparkamendu-, irisgarritasun- eta asegintze - arazoak hobetzeko plan orokorrari erantzuten dion salerosketa bat dela, eta zehaztu du premiazkoenetatik hastea erabaki dela.

*El Alcalde recuerda que, tal y como se ha tratado en varias comisiones, es una compraventa que responde al plan general para mejorar los problemas de aparcamiento, accesibilidad y amabilización de Irurtzun, y concreta que se ha optado por empezar por donde se considera más urgente.*

Eragiketa horretarako partida aurrekontuetan jasota dago, eta zenbatekoa dela eta, Alkatetzaren eskumena da, baina Udalbatzara ekarri da, Udalbatza ados dagoela balioesten delako.

*La partida para esta operación está recogida en presupuestos y por razón de la cuantía es competencia de Alcaldía, pero se ha traído a Pleno porque se valora que exista conformidad de la Corporación.*

Adostutako prezioa Udaleko aholkulari teknikoak txostenean ezarritakoa da, hau da, 74.882’59€, notariotza-gastuak, Jabetza Erregistroan inskribatzearena eta abar, sartu gabe.

*El precio acordado es el estipulado por el asesor técnico del Ayuntamiento en informe, que asciende a 74.882’59€, gastos de notaría, Registro de la Propiedad, etc. no incluidos.*

Hitzik hartu ez denez, gaia zuzenean bozkatzeari ekin zaio, eta **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Al no haber tomas de palabra, se somete directamente el asunto a votación y **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- Zinemaren partzela 74.882’59 euroan

*PRIMERO.- Aprobar la compra de la parcela del cine*

erostea onartzea, erosketa-gastuak barne hartu gabe.

*por la cuantía de 74.882'59€, gastos de compra no incluidos.*

BIGARRENA.- Alkateari erosketa egiteko beharrezkoak diren ekintza eta izapide guztiak egiteko adostasuna adieraztea.

*SEGUNDO.- Mostrar conformidad para que el Alcalde realice cuantos actos y trámites sean necesarios para llevar a cabo la compra.*

**9.- Dohaintza baldintzatua onartzea, hala badagokio.**

***9.- Aceptación de donación condicionada, si procede.***

Alkateak adierazi du, beste batzuetan jakinarazi den bezala, Hydro Extrusion Spain, SAU enpresak gizarte-arrazoietarako funtsak bideratzen dituen programa bat duela. Aurten, 10.000 euroko dohaintza eskaini dio Udalari, Aurrekontu Parte-hartzaileen partidan sartzeko, bai eta 10.000 euroko beste funts bat ere, 2025eko aurrekontuko partida bererako. Horrela, aurten parkea estaltzeko erabiliko lirateke, eta datorren urtean parte-hartze-prozesutik ateratzen denari erantzuteko.

*El Alcalde indica que, tal y como se ha ido informando en anteriores ocasiones, la empresa Hydro Extrusion Spain, SAU tiene un programa por el que destina fondos a causas sociales. Este año ha ofrecido al Ayuntamiento la donación de 10.000 euros a incluir en la partida de Presupuestos Participativos, así como otro fondo de 10.000 euros para la misma partida del presupuesto del año 2025. Así, este año se destinarían a cubrir el parque y el del año que viene a lo que salga del proceso de participación.*

Proposatzen dena da baldintzapeko dohaintza onartzea, eta Alkatetzari ahalmena ematea hitzarmena eta hori gauzatzeko behar den gainerako dokumentazioa formalizatzeko.

*Lo que se propone es aceptar la donación condicionada, y facultar a la Alcaldía para formalizar convenio y demás documentación necesaria para materializarla.*

Hitzik hartu ez denez, gaia zuzenean bozkatzeari ekin zaio, eta **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Al no haber tomas de palabra, se somete directamente el asunto a votación y **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- Hydro Extrusion Spain, SAU-k (IFZ: A-08120461) eskainitako dohaintza onartzea: 10.000 euroko zenbatekoa, ekitaldi honetako aurrekontu parte-hartzaileen partidan sartzekoa, eta zenbateko bereko beste bat, 2025. ekitaldirako.

*PRIMERO.- Aceptar la donación ofrecida por Hydro Extrusion Spain, SAU, con NIF A-08120461, consistente en una cuantía de 10.000 euros a incluir en la partida de Presupuestos Participativos de este ejercicio y otra, por la misma cuantía, para el ejercicio 2025.*

BIGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena eta akordioa gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

*SEGUNDO.- Facultar al Alcalde para la firma del convenio y cuantos documentos precise la ejecución del acuerdo.*

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek emaileari jakinaraztea.

*TERCERO.- Notificar estos acuerdos a la donante.*

LAUGARRENA.- Erabaki hauen berri ematea Udal Kontu-hartzailetzari, jakinaren gainean egon dadin eta ondorioak izan ditzan.

*CUARTO.- Dar traslado de estos acuerdos a la Intervención Municipal, para su conocimiento y efectos.*

**10.- Hala badagokio, Palestinari buruzko mozioaren onespena, EH Bilduko udal taldearen proposamenez.**

***10.- Si procede, aprobación de la moción sobre Palestina, a propuesta del Grupo Municipal de EH Bildu.***

Alkateak mozioaren laburpena egin du: Israel Palestinako Herriaren aurka egiten ari den genozidioa salatzen da, eta Israelek Nazioarteko Gortearen eta Nazio Batuen ebazpenak bete ditzala exijitzen da.

*El Alcalde hace un resumen de la moción: Se denuncia el genocidio que Israel está llevando a cabo contra el Pueblo Palestino, y se exige que Israel cumpla con las resoluciones de la Corte Internacional y de Naciones Unidas.*

Enrique de la Callek hartu du hitza, eta iragarri du bere taldeak ez duela mozioaren alde bozkatuko, partziala dela uste baitu. Gerra-gatazketan, alde guztiek sufritzen dute, batez ere alderdi zibilak. Kristoren garaitik gerran dagoen eremu bat da, eta egia da bi alde daudela; beraz, Palestinak bere burua defendatzeko eskubidea du, baina Hamasen lurreko ekintzak salatzea faltan botatzen da, eta, beraz, abstenitu egingo dira.

*Toma la palabra Enrique de la Calle, para anunciar que su grupo no votará a favor de la moción, porque considera que es parcial. En los conflictos bélicos guerras todas las partes sufren, sobre todo la parte civil. Es una zona que lleva en guerra desde la época de Cristo y es cierto que existen dos bandos, por lo que Palestina tiene derecho a defenderse, pero se echa en falta denunciar los actos terrestres de Hamas, por lo que se van a abstener.*

Alkateak erantzun du duela hilabete batzuk bere taldeak beste mozio bat aurkeztu zuela Hamasen ekintza aipatuz, baina, nolanahi ere, mozioarekin ez dela hasiera bat finkatu nahi, baizik eta salatzea Israelek Nazio Batuen ebazpenak betetzen ez dituelako eta ez dagozkion lurrak okupatzen ari delako dagoen gatazka, eta herritarren aurka ari dela, oro har, inolako bereizketarik egin gabe, eta, beraz, uste dute egoera salatzeko unea dela, Israel sortzen ari den milaka hildakoak ikusita.

*Responde el Alcalde que hace unos meses su grupo presentó otra moción en la que se hacía referencia al acto de Hamas pero, de todos modos, con la moción no se pretende fijar un inicio, sino denunciar que existe un conflicto porque Israel incumple las resoluciones de Naciones Unidas y está ocupando tierras que no le corresponden, y está actuando contra la población en general de manera indiscriminada, por lo que entienden que es el momento de denunciar la situación, a la vista de los miles de personas muertas que está generando Israel.*

Hitz hartze gehiagorik gabe, **Udalbatzak, EH Bilduko**

*Sin más tomas de palabras, **la Corporación, con los***

**zortzi hautetsien aldeko botoekin eta UPNko bi zinegotzien abstentzioarekin, honakoa erabaki du:**

***votos a favor de los y las ocho ediles de EH Bildu y la abstención de los dos ediles de UPN, acuerda:***

LEHENENGOA.- EH Bilduko udal taldeak proposatutako mozioa onartzea, Palestinari buruzkoa.

*PRIMERO.- Aprobar la moción propuesta por el grupo municipal de EH Bildu, sobre Palestina.*

BIGARRENA.- Erabaki hau elkarte sustatzaileari jakinaraztea

*SEGUNDO.- Notificar la adopción de este acuerdo a la asociación promotora.*

**11.- Erregu eta galderak.**

***11.- Ruegos y preguntas.***

Ez dago.

*No hay.*

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez eta iluntzeko 19:19ak direnean, Presidenteak bilera amaitutzat eman du, eta nik, Idazkari naizen aldetik, akta hau jaso eta ZIURTATZEN DUT.

*Y no habiendo más temas que tratar y siendo las 19:19 horas, el Presidente levanta la sesión, de la que extiendo el presente Acta que, como Secretaria, CERTIFICO.*

72824926A UNAI RAZKIN (R: P3190400F)
Firmado digitalmente por 72824926A UNAI RAZKIN (R: P3190400F)
Fecha: 2024.06.28 13:22:12 +02'00'

Alkatea / *El Alcalde*,
Unai Razkin Iriarte

44635243V EGUZKIÑE AIESA (R: P3190400F)
Firmado digitalmente por 44635243V EGUZKIÑE AIESA (R: P3190400F)
Fecha: 2024.06.28 11:30:02 +02'00'

ZIURTATZEN DUT
Idazkaria / *La Secretaria*
Eguzkiñe Aiesa Andres